



Jose Antonio Zuloaga Goitia, apirilak 25, San Markos eguna, utzi gintuen betirako. Zabala eta indartsua zen, osasun onekoa zirudien eta sineztezina da gure ondotik nola joan den ikustea baina errealtate gordina hil dela da.

Egungo sentimendua izan genuen ezagutzen zintugunok hil zinenaren berri izan genuenean, herrikoia, zintzotasun haundikoa eta begikortasunez bete zinen eta.

Arratsaldean "txikiteoa" zen bitartean ez zegoen beste berriketarik, denek zuten arridurazko espresioa bere aurpegitan.

HERRIKO SEME BATEN OROIMENEZ

(ZULU)

Jose Luis Insausti Urigoitia

Aipatu zein ekintzetan izan zinen partaide zuzena. Oraindik gogoan dut S.D.C. ONDARRA sortu genuen eguna, Etxe-Berritan. Berehala elkartearen erresposabilitatea hartu zenuen bide onetik eramateko asmoarekin. Eta horrela izan zen, eta orain ere horrela da. Zenbat urte erresposabilitate honen aurrean azerlan haundia zurea.

ONDARRA elkarteak burutzen hasi zituen ekintzak, zu aurrean zirela oso garrantzitsuak ziren, eta atzerantz botaz, 74 urtera noa. Lehen aureskulari txapelketa non direktiba eta bazkideok lan egin genuen txapelketa aurrera atera ahal izateko, eginkizun garrantzitsu bat zen eta. Baina nerekin ados egongo zara Joxan, beste bazkide baten laguntza izatearen zortea izan genuela esaterakoan, Jose Luis Aldasoro-taz ari naiz, txapelketa honen artifizerekin.



nagusiena izan zena. Gogoratzen al duzu Eibar, Elgoibar, Bergarako aurraskulariak etorri zirenean? aurrasku bizkaitarra dantzatzen zutenak, bada 20 egun lehenago dantzari hauei beste lagun haundi eta bazkide batek, Gipuzkoako aurraskua erakutsi zien, Xexilio Gastesi-taz ari naiz.

Dantzari beteranoei egin genien homenaldia eta Luis Arruabarrena bere 76 urterekin tabladura igo eta jendearen aurrean aurraskua dantzatu zuen.

Gabierrotan eta urte bat Telleri-Alden Infantil Futbol Txapelketa. Txapelketa hau geroztik ONDARRA elkarteak ekipo infantil bat sortu zuen, Kontxako hondartzako futbol txapelketan bera eta idazten duen honek hau eratzen aritu ginen.

Zarautz-ko txapelketan eta Hondarribiko txapelketan parte hartzea, zu delegatu zinela eta beranduago ni.

Esku pelotako txapelketa eskolarra. Pelota txapelketa lokala gomazko pelotarekin, eta hemen hainbat hilabeteetan egindako lana adierazi nahi dut, honen ondorioz partehartzaile guztiek sari bat eman zizutelarik.

Bukagaitz eta Alkartasunarekin izan zenituen elkarrizketak pelota Oreretan aurrera ateratzeko asmoarekin, bai esku pelota eta bai herramientazkoa, zaletu eta maitale zinan eta. Gainera gogoan dut "Los Luises"-ekoak antolatu zuten txapelketan zure parte hartzea.

Frontoi Muzipala irekitzeko ere izan zenituen hainbat bilerara, zure betiko ametsa maitagarriena zena eta errelitate egin zena.

Alkartasuna elkartearekin izandako elkarrizketak, bien artean, ONDARRA-ALKARTASUNA, herriko jaietan eta urtean zehar ekintza desberdinak antolatzeko, eta ekintza horietako bat Herri-Kirolak izan ziren eta dira. Lehen Harri Arrastera txapelketa eta Toka, Mantas-eko fabrikari, elkartearen arteko lehen sokatira txapelketa. Baina horretarako lagun onekin elkartzen jakin zenuen, lan egiten dakitenak eta kirola maite dutenak, Juan M. Salsamendi, Joxan Otxoa, Anjel Tejeria, Mariano Garro, Jesus Navarro, Txuma Diez, Javier Salaberria, hauek Ondarrakoak eta Martxel Puente, Rafa Bengoetxea, Txomin Arana, Antxon

Ayestaran, eta Miguel Iraeta Alkartasunakoak. Barka iezadazue izen asko esan gabe utziko nituen eta, baina burututako lana eta eskeinitako denbora eta gogoak hor daude, bai Ondarra eta Alkartasuna, eta bai Orereta elkarteak.

Ezin dut ahaztu, Zulu zure Club Deportivo Touring maitagarriaz, bereganako zenuen maitasunarengatik eta bere barnean egindako lanarengatik, Julio Beldarrain lagunarekin batera.

Ba Joxan, zure ametsak egi bihurtu dira, zuk landatu zenuena bere fruituak eman zituen.

Herriko kaleei zu ez ikusteaz ohitutzea nahikoa kostatuko zaie, eta Maddalena/94 hauetan asko gogoratuko zaitugu Oreretan, herrikoia eta onbera zinen eta, Jose Antonio Zuloaga.

Lagun eta kide bezela, kirolari gisa, gizon ona zinen, denen lagun, ez zenuen inolako mezprezurik merezi, zure lan malats eta gustokoarengatik maitatua izatea lortu zenuen. Eta noski zure ondoan lan egiteko zortea izan genuenok eta ezagutu zintugunok oroitzapen borraezinak beti gogoan izango ditugu.

Horrela zen "Zulu" laguna. Esaldi hauek homenaldi bat izatea nahi nuke bere lana eta dedikazio eskertuaz eta lagun baten besarkada emanaz.

Agur Zulu

Badira 10 urte beste pertsona on eta maitakorra Oreretan hil zela. Beste langile nekazetza zena, Juan M^a Insausti-taz ari naiz, Ondarrako bazkide eta direktiboa zena.

Seguru orain biak batera egongo zaretela eta bien artean toki abegikor bat eta justuago bat lortzeko lan egingo duzuela.

Joxan eta Juan M^a joan dira baina gogoratuak izaten direnak ez dira hiltzen, bere desagerpen fisikoaz gain.

